

Hizkuntza Plangintza Graduondoa

Sakontze egitasmoa

“Arratiako gazteen aisialdian euskara sustatzeko hizkuntza plangintza”



Andoni Ariznabarreta Trigo
Jose Inazio Mosteiro Robredo

Laburpena

Arratiako gazteen aisialdian euskara sustatzeko hizkuntza plangintza lanari helburu praktiko batekin eman zitzaion hasiera. Testuingurua eta azterketaren erdigune izan diren gazte euskaldunak kontuan izanda, horiek aisialdian euskara erabiltzeko hautua egiten duten edo ez ikertzea. Horrela, parte-hartzaileek egindako aukeraketatik abiatuta eta beraien nahi edota beharrezanez egokituz irtenbide edo proposamen bat plazaratzeko asmoarekin. Horretarako, aukeratutako eta erabilitako metodologia, metodologia eta kuantitatiboa izan da. Datuak biltzeko erabili diren teknikak inkesta edo galdetegi eta behaketa zuzena izan ziren. Hala, alde batetik, galdetegiak duten ziurtasuna jakinda, jende gehiagorengana heltzeko asmoz galdetegia egin zen eta, beste alde batetik, behaketa zuzena toki eta esparru desberdinetan pertsonak norbanako bezala eta talde bezala nola funtzionatzen eta erabakiak hartzen dituzten ikusi ahal izateko.

Edukien aurkibidea

Laburpena.....	2
Sarrera.....	4
Marko teorikoa.....	6
Metodologia.....	8
3.1 Diagnosia egiteko metodologia.....	8
3.2 Plana aurrera eramateko metodologia.....	9
Diagnosia.....	10
4.1 Arratiako egoera soziolinguistikoa.....	10
4.2 Arratiako udalen aisialdiko eskaintza.....	12
4.3 Inkesten emaitzak.....	13
4.4 Behaketa zuzena.....	27
5.1. Helburu zehatzak eta ESEP.....	29
5.1. Helburu zehatzak eta ESEP.....	29
5.2. Kronograma.....	40
5.3. Aurrekontua.....	45
5.4 Hizkuntza planaren ebaluazioa.....	45
Bibliografia.....	47
Eranskinak.....	48
ERANSKINA: Hizkuntza-gaitasuna.....	48
ERANSKINA: Kale-neurketa Igorren.....	49
ERANSKINA: Udalerrri euskaldunen hizkuntza-ingurunea.....	50
ERANSKINA: Etorkinen kopurua eskualdeka.....	51
ERANSKINA: Diagnosia egiteko erabilitako galdetegia.....	52

Sarrera

Arratiako bailara Bizkaiko hegoaldean kokatzen den eskualdea da. Bertan 14.000 biztanle inguru biltzen dira 9 herritan banatuta. Herri horiek Arratiako mankomunitatea osatzen dute. Eskualdean euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak, baina euskara da, erabilerari dagokionez, bietatik erabiliena; betiere, herriz herri egoera aldatzen dela kontuan izanda. Euskararen presentzia hezkuntzan, aisialdi elkarteetan, administrazioan eta abarretan ikus daiteke. Beraz, testuingurua guztiz euskalduna dela esan behar da¹.

Testuingurua aintzat hartuta, euskaraz bizitzeko oztopoak nahiko mugatuak direla ikusi ahal da, baina hala ere, bertara hurbilduz gero berehala antzematen da gazteek sarritan gaztelaniara jotzeko ohitura bereganatzen dutela². Gazte askok, eskolatik irten (eskolak bukatu ondoren, atsedendian...) eta berehala gaztelaniara jotzeko ohitura daukate, adinaren garrantzirik gabe (lehen agian institutuko ikasleetan antzematen zen baina gaur egun eskolan dauden umeek ere gero eta gehiago erabiltzen dute erdara). Hots, hainbat alditan euskal eremu idealizatu eta perfektu deitu izan dugun tokitik, eskolatik, irteteen beraien txipa aldatu egiten da. Gehien bat institutuko eta unibertsitateko ikasleetan nabaritzen den arren, haurren ere gero eta nabariagoa da aldaketa.

Arestian aipatutakoa oinarritzat hartuz eta egoera hori aztertzeke asmoz, aurrera eramane nahi izan den azterketa hurrengo da: Arratiako bailarako gazteen aisialdian euskararen erabilera aztertzea. Hots, txikitatik euskaraz jardun duten tokietan, testuinguru euskalduna aurkitzen duten guneetan eta euskara oso ongi menderatzen duten gazteek aisialdian zergatik jotzen duten erdarara. Honekin errealitateko egoerak hobeto ulertzea, joera hori hartzeko erabakia ezagutzea eta, azken finean, aldaketarako edo euskara sustatzeko proposamen bat egitea bilatzen zen.

Lan hau egiteko zioak agerikoak ziren: batetik, euskal testuingurua izanik eta euskara ondo menderatzen duten neska-mutilak izanda, zergatik egiten duten aukeraketa hori edo

¹ Ikusi 3. eranskina.

² Ikusi 4. eta 5. eranskinak. Egia da herri batetik bestera dagoen erabilera alda daitekeela baina aipatutako moduan Arratiako gazteak normalean lgorren ibiltzen dira.

zergatik duten horretarako joera; bestetik, jakin nahi zelako zeintzuk diren benetako arrazoiak gaztelaniaren aldeko hizkuntza hautua egiteko, hau da, zerk eragiten dien erabaki hori hartzerako orduan.

Azterketa aurrera eramateko metodo kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili ziren. Lehena, gertaera sozialak azaldu, aurreikusi eta kontrolatzeko erabili zen bi galdetegiren bidez. Lehen galdetegia zehatza ez zen egun batean bete zuten eta, bigarren galdetegia, eztabaidaren bukaeran bete zuten, horrela esandakoa eta ondoren idatzitakoa kontrastatu ahal izan zen. Bigarrena, kualitatiboa, jokabide sozialen zentzua eta esangurak konprenitzeko eztabaida-talde erdi bideratua izan zen. Honekin, lortu nahi zena hurrengoa izan zen: alde batetik, gazteek uste dutena esatea, izan ere badakigu askotan galdetegietan ez dutela egia esaten; beste alde batetik, benetako arrazoiak neurtzea, hots, kontzientziapeko jarrerak azaleratzea eztabaida-taldearen bidez.

Marko teorikoa

Munduan hizkuntzek bizi duten egoera gero eta kezagarriagoa da, eta ondorioz, Europar Batasunean eta, bereziki Euskal Herrian, oraindik gehiago. Horregatik, hizkuntza plangintzak garatzea, lantzea eta berritzen joatea ezinbestekoa da. Dena den, Hizkuntza Plangintza garatu baino lehen bere esanahia eta helburuak ezagutu eta ulertu behar dira. Hala, hizkuntza plangintza batek helburu ugari izan ditzake; ondorioz, definizio bakar eta orokor bat ematea ezinezkoa da; izan ere, bakoitzak bere testuinguru eta ezaugarrietara egokitu behar baitu.

Hizkuntza politika edo hizkuntza plangintza arlo akademiko gisa XX. mendearen bigarren erdialdean hasi zen garatzen. Deskolonizazio prozesuak eraginda eta immigraziotik jaiotako gutxiengoaren egonezina dela eta, hizkuntza politikari buruzko erabakiak hartu behar izan ziren. Sortutako estatu berriek aurretik ezarritako mugak errespetatu eta lurralde berri bat eraikitzen hasi ziren; baina horretarako, hizkuntza desberdina zuten herriak batu behar zituzten. Hala, hainbat kasutan ordura arte nagusi zen hizkuntza (ingeleza eta frantsesa) hartu zen ardatz gisa; beste zenbaitetan aldiz, ez zen horrela izan eta ezer idatzi gabeko hizkuntzetan idazten eta arautzen hasi ziren.

Hizkuntza plangintza kontzeptuaren bidez, beste batzuen hizkuntza-portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren irakaskuntzan, egituran eta funtzioetan egindako ahalegin kontzienteak adierazten dira (Cooper, 1997). Definizio hori izan daiteke abiapuntu, naiz eta lehenago esan bezala hamaika definizio egon. Terminoa lehen aldiz Haugen-ek erabili zuen, orduan corpus plangintza gisa ulertzen zena. Geroago soziolinguistikaren eskutik estatusaren plangintza etorri zen; bien arteko ezberdintasunak eta berezitasunak aipatuz. Corpus plangintza, hizkuntza berari lotuta dago, hau da, alderdi linguistikoa lantzen du. Estatus plangintza, hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du, hots, hizkuntzaren alde egindako ekimenak, jarduerak, kanpainak...

Hezkuntzako ikasteredu elebidunek ageriko gorakada izan dute azken urteetan, eta gaur egun haurren %90tik gora hasten da ikasten eredu elebidunen batean (D ereduan ikasleen

%65 baino apur bat gehiago, B ereduan %25 inguru)³. Horrekin batera, euskara transmititzeko aukera gero eta sendoagoa da. Guraso gehiago euskalduntzen ari da eta bikote mistoak (euskalduna eta erdalduna) ere haurrei euskara irakasten dietenak gero eta gehiago dira. Horrek guztiak, euskararen erabileran ondorio nabarmenak dakartza eta nahiz eta zentzu zabalean oso nabarmena ez izan arren, lotura garbia dute bi alderdi horiek euskararen erabileraren gorakadarekin.

Bestalde, hezkuntzan ere pauso sendoak ematen ari dira. Horren erakusgarri, eredu elebidunen gorakada eta Nafarroan D ereduak bizi duen zabalkundea eta hazkundea. Beste erakusgarri bat, selektibitatea euskaraz egiten dutenen kopurua da, 1995etik 2012ra % 25etik % 61era pasatu da⁴. Aldi berean, materialen sorketan edota itzulpen lanetan egindako lanak ere aipatu behar dira; izan ere, lan horri esker gero eta material gehiago dago eta gero eta aukera zabalagoak dena euskaraz aurkitzeko eta lantzeko.

Erabilerari dagokionez, gero eta erabilera gehiago erabiltzen da eta gora doa. Gainera, gorakada hori hasieratik edo oinarritik pairatzen da, hau da, haur eta gazteengandik hasita. Dena den, aipatu behar da gorakada hori gehienbat udan ematen dela, baina hori urteko beste urtaroetara ere hedatu daiteke ohitura bilakatuz eta horretarako indarrak bideratuz. Hori aurrera eramateko, eskola ezin da izan motor bakarra eta beste eragile, elkarte eta abarrek ere ahalegin berezia egin beharko dute egoera alda dadin. Horretarako, eskolaz kanpoko jardueretan euskara erabiltzeko aukera zabala eskaintzea eta horretara bideratutako taldeak sortzea eta saretzea. Erabilera sustatze aldera, euskararen elikadura eta mantentzea nahitaezkoa da. Hala, sentsibilizazio kanpainak egitea eta bultzatzea, euskal kulturaren ondarea erakustea eta zabaltzea, sorkuntza bultzatzea eta ondarea elkarbanatzea oso garrantzitsua izango da. Dena bideratzeko, aurretik aipatu bezala, Udala bitartekari, sustatzaile, laguntzaile, babesle... izan behar da eta elkarlanerako bideak sortu beharko ditu (artistekin, argitaletxeekin eta bestelakoekin).

³ ESEP

⁴ ESEP, Irakaskuntza atala

Metodologia

Ugari dira euskararekiko jarrerak aztertu dituzten lanak eta hainbat teknika eta metodo ezberdin erabili izan dira. Horien artean ezagunenak metodo kualitatiboa eta kuantitatiboa dira. Esku artean duzuen ikerlanean, *Arratiako gazteen aisialdian euskara sustatzeko hizkuntza plangintza*, hizkuntza hau erabiltzean jarrerek zer nolako zeresana duten aztertu ahal izateko, erabili den metodoa, kualitatiboa izan da. Horretarako galdetegia eta behaketa zuzena erabili dira. Teknika kualitatibo horien bitartez, aztergai diren pertsonen galdera zehatzak eta beraien inguruko eskaintza eta portaera aztertu da errealitatearen argazkia izateko. Hala, galdetegi txiki bat bete behar izan dute parte-hartzaileek, bereziki azterketan parte hartu duten gazteentzat prestatutakoa. Galdetegiaz gain, behaketa zuzena ere egin da; izan ere, jakina da galdetegietan askotan ez dela egia esaten edota ez egia guztia; horregatik metodo bien uztarketa.

3.1 Diagnosia egiteko metodologia

Aurretik aipatutako helburua gauzatzeko datu batzuk aztertzea behar beharrezkoak izan dira; besteak beste, herriko gazteen errealitate linguistikoa, jarrera, erabilera eta zaletasunak. Hots, gazteek duten jarreraren eta jokabidearen diagnosia egin behar izan da. Datu bilketa egiteko, bi metodologia erabili dira: galdetegia eta behaketa zuzena.

Hasiera baten eztabaida talde desberdinak osatzea aurreikusten zen: alde batetik, begirale, entrenatzaile, irakasle... direnena; beste alde batetik, gazteena. Izan ere, haien iritzia ezagutzea eta horren berri ematea oso garrantzitsua da; horretarako, talde dinamikak oso egokiak dira. Hala ere, hainbat arrazoi medio direla (ordutegiak, prestasuna eta abar) ezin izan da aurrera eraman. Hortaz, bereziki, galdetegian eta behaketan zentratu da.

Galdetegia Internet bidez bete dute batzuek zein besteek eta galdera zehatzez osatutakoa izan da, hau da, inkesta eginari zenbait aukeren artean aukeratzeko esan zaio. Hala, gazteen eta bestelakoen errealitate linguistikoa, zaletasunak, jarrera eta etxeko eta lagunarteko hizkuntza zein den aztertu nahi izan da.

Metodo kuantitatiboaren aukeraketa nahiko sinplea da, oso egokia baita gizarte jarderak aztertzeko. Dena den, jakina da ez dela teknika guztiz fidagarria hainbatek errealitatea ez dena adierazten dutelako. Hala, galdetegia egin ondoren jasotako emaitzen zenbaketa eta erregistroa egin da, ondorengo analisia egiteko (Hernández, 2010).

Bestalde, behaketa zuzena modu sistematikoan eginda gazteek beraien artean zein hizkuntzetan egiten duten aztertzeko. Horretarako, Udaletako informazioa jasotzeaz gain, batez ere Igorreko, baina beste herri batzuetako tokiak ere (kiroldegia, futbol zelaiak, pilotalekuak, dantza lekuak...) bisitatu dira. Hala, toki horietan entzundakoa jaso da. (Hernández, 2010)


3.2 Plana aurrera eramateko metodologia

Arratiako udaletan badaude hainbat teknikari lanean, baina udal guztiek ez dute teknikaririk. Hori dela eta, hizkuntza plangintza graduondoa egiten dabilen ikaslea eta Arratiako herritarra izango da hizkuntza plana garatzearen arduraduna. Hala ere, beste teknikarien laguntza du, hortaz, berak diseinatu eta aurrera eraman arren beste pertsona batzuek ere laguntza eman diote. Horrez gain, herritarrek parte hartu ahal izango dute; horretarako bereziki sortutako espazioa baliatuz. Bertan, herritarrek euren ekarpenak egin ahal izango dituzte. Gainera, Udala, teknikariak eta planaren diseinatzailea hiru hilabetero batzartuko dira, jarraipen zuzena egiteko. Bileretan, planaren egoera aztertu eta unean-unean aldaketak egingo dira; horrela, plangintzaldian sor daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko mekanismoak garatuko dira.

Diagnosia

4.1 Arratiako egoera soziolinguistikoa

Sarreran aipatu bezala, Arratiako bailara Arratia Nerbioi eskualdearen barruan kokatzen den lurraldea da, Bizkaian hain zuzen ere. Bilara bederatzi herriko osatzen dute, orotara 14.000 biztanle inguru.



Irudian ikus daitekeen bezala, 20 eskualde daude bertan hiru lurraldetan banatuta. Eskualde horien artean zortzi dira gehien nabarmentzen direnak: Lea-Artibai, Urola Kosta, Busturialdea, Tolosaldea, Debagoiena, Goierri, Debarrena eta Arratia Nerbioi. Horiek guztiek euskaldunen ehunekorik handiena dutenak dira; baina hala ere, tamaina ertaineko eskualdeak dira, 20.000-70.000 biztanle artean dituztenak. Zortzi eskualde horietako biztanleriaren bilakaerari dagokionez, eskualde batzuetan biztanleria asko hazi da azken 30 urteetan (Urola Kosta) edo hazi egin da, baina neurri txikiagoan (Arratia-Nerbioi, Tolosaldea eta Busturi aldea)⁵.

⁵ EUSTAT

15. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)

	Bizkaia			
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
≥ 85	27.659	19,5	7,1	73,4
80-84	37.502	17,7	7,4	74,9
75-79	51.103	16,3	8	75,7
70-74	48.458	14,7	9,3	76
65-69	58.746	14,2	12,1	73,7
60-64	69.418	14,7	14,7	70,6
55-59	74.051	15,8	16,7	67,4
50-54	87.532	18,7	19,4	61,9
45-49	92.252	21,2	22,5	56,3
40-44	92.565	22,6	28,5	48,9
35-39	96.085	26,2	34,1	39,6
30-34	91.259	32,8	32,8	34,4
25-29	70.526	40,7	28,3	31
20-24	53.661	51,3	24,8	23,9
15-19	44.702	68,1	18,4	13,6
10-14	45.113	81,2	13,5	5,3
5-9	50.645	75,2	19,1	5,8
GUZTIRA	1.091.277	30,3	20,8	48,8

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011

Ikus daitekeenez taulak bilakaera argia du, hau da, zenbat eta gazteago orduan eta euskaraz aritzeko gaitasun handiagoa. Hala ere, umeean ematen den bilakaera nahiko xelebrea da; izan ere, umeez gazteek baino gaitasun txikiagoa dute.

4.2 Arratiako udalen aisialdiko eskaintza

Plan hau garatzeko orduan beste udalerriak ere kontuan hartu dira: alde batetik, oinarri gisa erabiltzeko; beste alde batetik, orain arteko ekintza arrakastatsuekin jarraitzeko, horiek hobetzeko eta berriak proposatzeko. Hala, hainbat udalek informazioa erraztu dute, baina beste batzuek arrazoi desberdinegatik ez dute informazioa eman nahi izan. Horregatik, bereziki Igorren egiten diren ekintzak aipatuko dira, nahiz eta beste udalerrietako eskaintza antzekoa edo berdintsua izan. Dena den, hasiera baten bilketa osoa egitea aurreikusten bazen, orain eta bildutako informazioa kontuan izanda, Igorre hartuko da erdigunetzat eta hori izango da azalpenaren ardatz eta hasiera puntua.

Arestian aipatutakoaren ildotik, Igorren euskara plana dago. Aldi berean, kulturako alorretik ere hainbat ekintza bideratzen dira. Horretarako, gazteria zerbitzua eskaintzen da. Zerbitzua herriko gazte bik bideratzen dute, bata mutila eta bestea neska. Biak dira euskaldunak eta herrian ezagunak, beraz, esan daiteke euskararekiko duten jarrera ezin hobea dela eta oso aproposak direla postu horretarako. Dena den, aurrera eramaten dituzten ekintzak gazteekin batera adosten dituzte. Horrela, haien inplikazio eta parte-hartzearekin gazte gehiagorengana hel daitezke eta arrakasta handiagoa lortu.

Igorren azken urtean egin diren ekintzak:

- Eskietan urteera
- Hontza Extrem
- Negulekuek Donostia
- Urederra (ibaiaren jaiotzara irteera)
- Patinajea
- Umeen gabonetako parkea
- Gazte kuadrilla eguna
- Sagardotegia
- Sukaldaritza ikastaroak


- Zaldien urteera
- Uda maratzen
- Udalekuek Jaka
- Udalekuek Laida

4.3 Inkesten emaitzak

Lehendabizi, aipatu beharra dago jasotako emaitzek ez dutela hasieran uste bezain pisu handirik ezta indarrik; izan ere, nahiz eta zabalkunde handia egin sare sozialen bidez eta ahoz aho ez da lortu esperotako erantzuna. Arratian dauden gazte kopurua aintzat hartuta, , ulergaitza da nola hain gazte gutxik erantzun izana. Hala ere, behaketaren bidez beste hainbat gauza ikusi ahal izan dira eta horietan jasotako datuei esker ondorioak atera.

1. Gazteen jatorria

Arratiako bailaran aniztasun handia dago; izan ere, bertako gazteez gain, Zornotza, Galdako eta inguruetakoko herri eta hirietako gazteak ere bertatik ibiltzen dira. Horrela, bailarako toki desberdinetan bailarakoak ez diren gazteek parte-hartzen dute ekintza desberdinetan.




Lehendabizi, aipatu beharra dago nahiko ezaguna den kontua, hau da, Arratiako Bailaran

beste toki batzuetatik etorritako gazteak bizi direla. Dena den, Arratiako gazteez gain badaude beste zenbait ere inguruko herrietatik bertara etortzen dena; grafikoak erakusten duenez.

2. Gazteen adina


Galdetegia egin duten gazteen adina jakitea garrantzitsua izan da benetako egoera zein den jakiteko eta horra zuzentzeko. Horrela, haien adinera hobeto egokitzen diren jarduerak egin ahal izateko.



Adin tarteari dagokionez, gazte-gaztetatik hasita ia 30 urtera arteko tartea daukagu. Egia da, parte-hartzaileen kopurua ez denez oso handia izan zenbakiak ez direla guztiz fidagarriak, baina gutxi gorabehera irudi bat egiteko balio dute. Hala, gehien nabarmentzen diren adinak dira: 19, 18 eta 25. Beraz, ondorioztatu daiteke gazteen gehiengoa adin horien tartean mugitzen dela.

3. Sexua

Partaideen sexua jakitea ere, garrantzitsua da. Izan ere, edozein azterketetan bezala batzuek eta besteek emaitza desberdinak izaten dituzte. Oraingoan ere, gizon eta emakume kopuruaren arabera ikuspuntua alda daiteke, beraz, partaideen generoa jakitea inportantea izan daiteke ekintzen garapenerako. Nahiz eta zentzu handi baten eraginik ez izan edo bereizketarik ez egin, kopuru bat beste bat baino handiagoa bada, kopuru horri begirako berariazko ekintzak burutu daitezke.




Aipatutakoa oinarritzat hartuz, irudiak argi erakusten du emakume kopurua askoz handiagoa dela gizonezkoenarekin alderatuz gero. Hortaz, eskaintza gazte guztiei begira egin arren, hainbat ekintza emakumeei begira egin daitezke, bai formazioa lantzeko bai aisialdia aprobetxatzeko.

4. Aisialdi tokia

Gazteek beraien aisialdia non ematen duten ere garrantzitsua da. Informazioarekin plana egiterako orduan zer landu eta nola definitu baitaiteke. Hala, toki bakoitzean egiten diren ekintzak eta bertan egingo direnak uztartu daitezke.

Zure aisialdiko denbora tarterik handiena non ematen duzu?


95 erantzun



Grafikoak adierazten duenez, gazteen erdiak baino gehiagok Igorren igarotzen dute denbora gehien. Ondoren, beste toki batzuetan ematen dute, bereziki eta galdetegiko emaitzetan oinarrituta, Arratitak kanpo. Azkenik, Zeanuri eta Lemoa ere toki esanguratsu bezala ageri zaizkigu.

5. Rola

Gazteek aisialdian duten esku hartzea eta zein rol betetzen duten jakitea lagungarria da. Hainbat kasutan, lagungarria izan daiteke eremu zehatzetan eragiteko.




Orokorrean ekintzetan parte-hartzen duten gazteak ageri zaizkigu, baina aldi berean boluntarioak eta begiraleak ere toki garrantzitsua dute. Beraz, ekintzak proposatzeaz gain ekintza horiek bideratuko dituzten gazteen jarrera, motibazioa eta abar ezagutzea eta horietan eragitea funtsezkoa izango da.

6. Hizkuntza

Gure gazteek familiarean eta lagunartean erabiltzen duten hizkuntza zein den jakiteari garrantzia handia ematen zaio. Izan ere, datu honen arabera, helburu jakinak zehaztu daitezke, harreman hizkuntza hori bere horretan mantentzeko edo hori aldatzeko unean- uneko neurriak hartuz.

Zein da zure hizkuntza?




Grafikoak agerian uzten du Arratiako egoera soziolinguistikoan lortutako emaitzak. Euskara da nagusi denetan; baina hala ere, badago kezkarria den datua: lagunartean eta aisialdian euskara nagusi izan arren gaztelaniak bere tokia duela. Beraz, argi dago esparru horietan eragiteko ekimenak, ekintzak, ariketak... proposatu eta egin behar direla.

7. Hizkuntza erabileran

Eremu formal zein informalarri dagokionez, gazteen hizkuntza ohitura jakin beharra dago. Modu horretan, aurreko datuekin alderik dagoen edo ez jakin daiteke, eta egoera horri aurre egiteko edo bere horretan mantentzeko helburuak eta mekanismoak garatu daitezke.


Zein hizkuntza erabiltzen duzu?



Aurrekoan bezala, hemen ere euskara da nagusi. Hizkuntza erabiltzeko orduan euskarari berariazko tokia aitortzen zaio; berdin du zein esparrutan. Ondorioz, ikus daiteke gazteek zer nolako hautua egiten duten eta hortik indartzeko eta berdin jarraitzeko jarduerak gauzatu.

8. Aisialdiko ekintzak


Hasieran esan bezala, helburu nagusia herriko gazteen aisialdian euskararen erabilera eta presentzia areagotzea da. Horretarako, gazteek aisialdian zer egiten duten jakin behar da, euren interesekin bat egiten dituzten ekintzak garatu ahal izateko.



Dagoen eskaintza kontuan izanda, gazte gehienek kuadrillako ekintzak egiten dituzte. Hortaz, ondorioztatu daiteke kuadrillan egiten diren ekintzek eragin handia izango dutela hizkuntza hautuan. Bestalde, kirola, dantza eta musika ere garrantzitsuenetakoak dira, eta dantza eta musika munduan, orokorki, euskara da nagusi.

9. Kirola

Aisialdia aipatzean, orokorrean kirolarekin lotzen da, baina egia esan behar bada zentzu zabalago batean ulertu behar da. Hala ere, zein kirol praktikatzen duten jakitea garrantzitsua; izan ere, kirolaren arabera hizkuntza aldatzen baita.




Kirolen banaketa ezagutzea garrantzitsua da, eta kasu honetan behintzat, galdetegian aipatzen ez ziren beste kirol batzuk nabarmendu dira (grafikoan beste bat). Hala ere, futbola dugu nagusi eta dakigunez, orokorrean, futbolekin erabiltzen den hizkuntza gaztelania da. Bestalde, badaude indarra daukaten beste kirol batzuk: crossfit, eskalada eta igeriketa. Horietan, euskara da nagusi testuinguruarengatik, hau da, begirale eta partaideak euskaldunak dira.

10. Sare sozialak eta hizkuntza

Aurrerago aipatu bezala, aisialdia ez da soilik kirola, beraz, bestelako jarduerak eta jokabideak ere aztertu behar dira. Horregatik, sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntza jakin nahi da. Badakigu egun sare sozialek zer nolako oihartzuna duten gazteengan eta egiten duten hizkuntza hautua ezagutzea ezinbestekoa da.

Sare sozialak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

96 erantzun




Sare sozialek ere ikaragarritzko garrantzia dute, gazteek gero eta gehiago erabiltzen baitituzte. Grafikoa begiraturaz, bi gauza nabarmendu daitezke: batetik, euskara da nagusi eta euskara erabiltzen dute gehienbat; bestetik, gaztelaniak ere indar nahikotxo duela. Beraz, gaztelaniazko erabilera igo ez dadin neurriak hartu beharko dira.

11. Telebista eta hizkuntza

Sare sozialen ildotik, telebistak ere gaur egun ikaragarritzko garrantzia dauka. Garaiotan telebistak duen garrantzia ez baitzeukan lehenago. Gainera, hezkuntzan ere telebistak edota filmak, telesailak eta abar ikusten diren heinean horiek eragin handia izaten dute gazteengan.

Telebista zein hizkuntzatan ikusten duzu?




Telebistan gaztelaniaren indarra nabarmena da, orain arte gazteek gaztelaniaz kontsumitu izan dute eta horrela izaten jarraitzen du. Horren erakusgarri grafikoan ageri zaizkigun datuak. Albistegietan izan ezik, beste guztietan gaztelania da nagusi, eta alde handiarekin.

12. Musika eta hizkuntza

Oraingoan ere, aurrekoetan bezala, musika edonon eta edozein tokitan entzun daiteke. Ondorioz, gazteek musika zein hizkuntzatan entzuten duten jakitea premiazkoa da. Musikak zeharkako eragin handia dauka eta hori nabarmena da gizarteko edozein eremutan.

Musika zein hizkuntzatan entzuten duzu?

97 erantzun




Irudian ikus daitekeenez, % 34 euskaraz eta gaztelaniaz entzuten du musika, eta ondoren, % 30,9 gehienbat euskaraz. Datuok nahiko adierazgarriak dira, egun modan dagoen musika kontuan hartzen badugu, goraipatzekoa da euskarak duen tokia. Bestalde, soilik euskaraz entzuten dutenek gaztelaniazkoekin alderatzen baditugu, aldea nahiko handia da. Hortaz, musikaren kasuan emaitza onak eskuratu direla aipa daiteke.

13. Parte-hartzea

Herrian egiten diren ekintzetan parte-hartzea garrantzitsua da ikusteko gazteek zer nolako jarrera duten eskaintzarekiko, eta baita aisialdiarekiko ere. Egiten edo proposatzen diren jardueretan parte-hartzen badute, hori zantzu on bat izango da. Izan ere, zenbat eta parte-hartze handiagoa orduan eta emaitza hobeagoak lor daitezke.

Herrian antolatzen diren aisialdiko ekintzetan parte hartzen duzu?

97 erantzun




Orain arte parte-hartzearen inguruan jardun dugu eta grafikoak adierazten duen moduan, % handi batek herriko ekintzetan jarduten du. Dena den, % 21,6 hori ekintzetan parte-hartzera bultzatu behar da; izan ere, hori eginez gero, arrakasta handiagoa izango da eta emaitza hobeagoak lor daitezke.

14. Informazioa

Informazioa eskura izatea eta ulertteraza ezinbestekoa da gazteen partaidetza bilatzen baldin bada. Horrela, denengana heltzen dela eta denek eskura dutela ziurtatu dezakegu; ondorioz, arrakasta handiagoa izan dezake ekintzak eta gazteek inplikazio maila handiagoa.

Baduzu edo jasotzen duzu horren inguruko informaziorik?

95 erantzun



Grafikoak argi adierazten du, egun, gazteek informazioa eskura dutela eta hori eskuratzeko arazorik ez dutela.

4.4 Behaketa zuzena

Behaketa zuzena metodo zuzena eta zehatza da, hainbaten ustez emaitzak nolakoak diren erakusten duen metodologia. Hala, metodo honekin gazteen erabilera aztertu da. Horretarako, hilabete inguru, orotara, eman da toki desberdinetan egoerak aztertzen. Denbora tarte horretan gazteek, hainbat tokitan (kirol eremua, taberna, herriko ekintzak...), euren artean zein hizkuntzatan egiten duten aztertu da. Behaketa aurrera eramateko arduraduna ni, Andoni Ariznabarreta Trigo, izan naiz. Hala, ahalik eta zorrotzen izateko, orri batean jaso da unean uneko egoera eta informazioa. Horrez gain, udaletako kultura eta euskara (dagokion herrietan, herri guztietan ez baitago euskara teknikaria) teknikariekin ere hitz egin da beraien pertzepzioaren berri izateko. Egindako datu bilketaren emaitza nagusia edo nabarmendu daitekeena zera da: batetik, eremu zehatzetan gaztelania nagusitzen dela; hala nola: futbol-zelaian eta lokaletan. Hala ere, esan beharra dago, kirol esparruan batez ere, entrenatzaile-begiraleek zerikusi handia dutela hizkuntzaren erabileran; izan ere, haiek dira eredu eta egiten duten hautuaren arabera gazteengan eragina izaten dute. Ondorioz, esan daiteke zenbait kasutan ez dutela laguntzen. Bestetik, euren artean euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko ohitura daukate, hau da, memento batzuetan euskaraz ari dira baina bat-batean gaztelaniara jotzen dute, eta alderantziz. Azkenik, tabernetan euskara gehiago entzuten da, baina bitxia da emakumeek euskara gehiago erabiltzeko ohitura baitaukate.

4.5 Ondorioak

Galdetegietako emaitzek eta behaketa zuzenak argi erakusten dute euskarak indar handia duela gazteengan baina badaudela kontuan hartu behar diren zenbait gabezia eta hutsune. Hori guztia bideratzeko, ezinbestekoa izango da udalen, elkarteen, klubaren, herritarren... arteko elkarlana eta saretzea. Horregatik, udaletako teknikariek eta zinegotziek inplikazio maila oso handia izan behar dute ekintzetan eta batez ere euskararekin lotutako ekintzetan. Hala ere, zenbait alderdi edota esparru oso kontrolatuta eduki behar dira: komunikabideak eta sare sozialak esaterako. Horiek ikaragarritzko garrantzia dute gazteentzat eta haien egunerokotasuneko kontua den heinean, oso inportantea izango da horiei arreta berezia ematea eta propio sortutako ekintzak eta jarduerak bideratzea.

Bestalde, herritar desberdinak batzen dituen gunea sortu beharra dago egungo aniztasun egoerari aurre egiteko. Euskararen etorkizuna gazteengan eta etorri berrietan aurkitzen da, beraz, bi horiek uztartzea eta hortik proposamenak garatzea oinarritzkoa izango da gure herriak arnagune bilakatzeko eta euskara ohikotzat hartzeko.

Azkenik, gazteak euskarara hurbildu nahi badira aisialdiko eskaintza bereziak proposatu beharko dira. Berezi adin tarteka diseinatutakoak eta helburu zehatzak ezarrita, betiere beraien errealitatera eta testuingurura egokituta. Izan ere, hori izango da gazteak erakartzeko eta lotzeko modu bakarra. Beraz, lan handia dago eginda baina oraindik asko dago egiteko eta hobetzeko.

Hizkuntza plana

Lehendabizi, diagnostikoan ateratako ondorioek zenbait helburu zehatz landu behar direla argi utzi dute. Bada, hizkuntza planaren jarduerekin hasi aurretik, xede zehatzak azalduko dira; eta, horiek Euskararen Aholku Batzordeak egindako Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (ESEP) uztartu.

Lan hau ESEPe jasotzen dituen helburu eta arloen arabera diseinatuta dago; izan ere, planak datozen urteetan garatuko den hizkuntza-politikaren neurri eta proposamenak biltzen ditu. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Aholku Batzordeak diseinatutako planak, euskararen erabilera handitzea, bermatzea eta euskara eta euskal kultura sustatzea ditu helburu. Hala, hainbat funtsa eta gidalerroen aplikazio praktikoak proposatzen ditu.

ESEPen hiru helburu estrategiko bereizten dira: euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura. Xede bakoitzean, eragin-eremuak daude, hau da, esparruak edo arloak. Horietara iristeko bi zehar-lerro proposatzen ditu: motibazioa eta zabalkundea. Zehar-lerroek helburuak elikatzeko jarduerak biltzen dituzte; gainera, zuzenean eragiten diote hizkuntzaren erabilerari.

5.1. Helburu zehatzak eta ESEP

Lehenago aipatu bezala, helburu zehatzak ezartzeko premia ikusi dugu. Izan ere, galdetegian eta behaketan jasotako emaitzek adierazi dute hainbat ohitura, jarrera... aldatu behar direla eta horietan eragin behar dela euskararen onurarako. Hala, gazteen egoera iraultzeko, hainbat helburu planteatu ditugu:

- Euren aisialdiarekin lotutako ekintzak garatzea
- Beraien arteko harremanetan eragitea
- Euskal kulturaren kontsumoa handitzea
- Beraien eremu pribatuko ekintzetan eragitea (sare sozialak, komunikabideak...)

■ Herriko elkarte eta eragileak inplikatu

Helburu horiek eta hasiera-hasieratik aipatutako helburu nagusiek lotura hertsia hertsia dute 2012ko uztailaren 18an onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (ESEP) (Eusko Jaurlaritzaren 2014). Aipatu beharra dago, horren helburu nagusia euskararen erabilera areagotzea zela. Urte berean, uztailaren 24an, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu eta Eusko Legebiltzarrerara bidali zuen aurrera eramateko.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plan horren barruan hainbat atal daude, baina hala ere, gu hirutan oinarritu gara: aisia eta kirolean, kulturgintzan eta familia bidezko transmisioan. Horretaz bereiz, zehaztutako helburuak ESEP-ek dioenarekin lotu dugu.

Familia bidezko transmisioa

1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea

1.6 Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.

Gurasoak kontzientziatzea nahitaezkoa da umeei eta gazteei beraiei hizkuntza hautua egiterako orduan. Horretarako, Udalak kontzientziazio kanpaina egingo du “moskeo kanpaina”ren bitartez. Herriko toki desberdinetan, esaldi, irudi, kartel... jarriko dira hainbat egoera irudikatuz. Bestalde, Udalak euskaltegiarekin elkarlanean gurasoentzako ikastaroak antolatuko ditu: euskara ikasten; euskara hobetzen; ohiturak aldatzen; jolasak ikasten...

3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

3.1 Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeei euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea

Familia barruan euskara erabiltzea oso garrantzitsua da, aurreko puntuan aipatu legez, guraso seme-alaba erlazioa bezala eta hori euskaraz izatea lortuz gero, arrakasta askoz handiagoa izango da. Horretarako, berezko guneak sortu eta elikatu behar dira. Hala, Eskola, ludoteka eta beste zenbait leku erreferentzia bihurtu daitezke zenbait kasutan. Horretarako,

Familiak olgetan ekimena aurrera eramatea proposatzen da. Ekimen horren barruan, ekintza desberdinak egongo dira urtean zehar umeek eta gazteek gurasoekin jolasteko eta euskaraz bizitzeko.

Gune geografiko euskaldunenak

1.5 Hizkuntza paisaia -ez bakarrik eskumen publikokoa, baizik eta baita merkataritza eta enpresa arlokoa ere- oro har euskaraz izateko neurriak hartzea.

1.7 Merkataritza kokaguneetan bezero euskaldunak euskarazko zerbitzua jaso ahal izango duela bermatzea

Bi horiek elkar lotuta doaz, hau da, biek zerikusia dute eta biak uztargarriak dira. Hala, gaur egun badago hitzarmen bat, baina hori hobetzen jarraitzeko eta zerbitzu hobeak eskaintzeko aukera aurreikusten da. Horretarako, hitzarmen berria proposatuko da herritarrek euskaraz aritu ahal izateko eta jasotako informazioa eta publizitatea euskaraz egoteko (batez ere, gehiago eta ikusgarriago).

1.8 Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera-eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezitzaileak, gurasoak, ikasleak) eta herri- administrazioek parte har dezaten

Eskolaz kanpoko jarduerak ikaragarriko garrantzia eta eragina dute gure haur eta gazteengan. Hori dela eta, eskaintza zabala eta adinari ondo egokitua plazaratzea ezinbestekoa da. Hala, Arratiako udalek, hezitzaileek eta parte-hartuko duten umeen gurasoek partaidetza eta inplikazioa ezinbestekoa da jardueren garapen egokirako. Horretarako, ekintzaz jositako plan bat garatuko da. Bertan, kulturaren hainbat alderdi landuko dira: hizkuntza, literatura, ondarea, historia eta bar luze bat. Ekintza batzuetan hezitzaileak izango dira dinamizatzaileak edota bideratuko dutenak, baina beste zenbaitetan gurasoak izango dira. Gurasoak eredugarri izatea nahitaezkoa da, umeek beraiengan ikusten dutena egiten baitute eta etorkizunari begira oso lagungarria izan daiteke.

1.11 Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)

Azkenaldian gero eta etorkin gehiago dago gurean⁶ eta ondorioz horiek gure gizartean integratzea oso garrantzitsua da bi zioengatik: alde batetik, beste toki bateko gizarteko parte diren heinean horretan txertatuta eta integratuta egon behar dute; beste alde batetik, bertako parte direnez, kultura hori ezagutu eta berau barneratzeko aukera daukat. Horrela, bertakoek harrera hobeagoa eta egoera ezin hobea izango dute beraien kultura zabaltzeko (Euskal Herrian bereziki, hizkuntza gutxituen kasua dela eta). Hori horrela izan dadin, kultura elkarbanatzea, trukatzea eta besteari ikastea izango dira helburu. Horretarako, erakusketak, hitzaldiak eta ikasle etorri berrientzako ikastaroa egingo dira.

Aisia eta kirola

1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Eusko Jaurlaritza, 2014).

1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

Herrian egiten diren kirol ekitaldietan euskara ezinbestekoa izatea. Hala, proba ezberdinetan: Arratiako maratoi txikian, Igorreri bira, igeriketa txapelketa, futbol txapelketak... Bestalde, aisiako asti taldeez gain (euskaraz aritzen direla, Zaztaparrak horren erakusle), Udalak zein bestela elkarren batek antolatzen dituenetan: irteerak (udako bidaia, eski irteera...)

1.3 Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea

Urterik urte dagoen eskaintza zabaltzen joan, hau da, irakurle taldea sortu, udako zinema berreskuratu, antzerkia lantzeko tailerrak egin, zirkuari jarraipena eman eta lagundu, Arratiako musika taldeei aukera gehiago eskaini...

⁶ Ikus eranskina: etorkin kopurua eskualdeka

6. Gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea

6.1 Esparru honetako euskararen erabilerari bultzada emango dioten berrikuntzak propio asmatu eta garatzea

Alde batetik, ordezeko edo gune alternatiboak sortu, hau da, gazteentzako propio sortutako espazioa eraiki eta baliatu. Gazteekin bilerak planteatuko dira beraiekin batera gustu, nahi, jakin-min eta abarretatik abiatuz ekimenak, jarduerak... asmatzeko. Aplikazio bat sortzea gazteen saretzea egiteko eta ekimenen berri ematea esaterako.

7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea

7.1 Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

Plangintzaren helburua hori da, eta hori lortzeko aisialdian hainbat jarduera egiteko aukera eskainiko zaie; besteak beste, topaketak, ikasle trukea, erakusketak... Horretarako gazteek eta Arratiako udalek sortutako lantalde bat martxan jarriko da dena bideratzeko. Talde horretan herri desberdinetako eta jatorri desberdineko gazteak batuko dira. Izan ere, biak uztartuz irten daitezkeen ideien eta proposamenen jario handiagoa eta aberatsagoa izango da.

B) Kirola

8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

8.2 Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzeta-protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko une oro

Herrian kirolean dabiltzan elkarte, eragile eta kolektiboen arteko elkarlana. Horretarako, Arratiako udalak bitartekari lanetan ibiliko dira hori guztia bideratzeko guneak sortuz eta materiala eta laguntza eskainiz. Hala, kirol guztietan euskaraz presentzia bermatzeko neurriak hartuko dira. Hori dela eta, elkarteek, eragileek eta kolektiboek hitzarmena sinatuko dute. Aldi berean, udalak edozein laguntza eskaintzeko prest agertuko dira. Gainera, beste udalek ere kolaboratu behar dute; izan ere, garrantzitsua da herri guztiak inplikaturik egotea euskararen presentzia bermatzeko.

8.4 Entrenatzaileak trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea

Entrenatzaile, begirale eta bara eredugarri izatea oinarri-oinarrizkoa da. Hala, Arratiako Udalen Mankomunitateak, udalekin elkarlanean, hainbat ikastaro eta trebakuntza saio eskainiko ditu. Ikastaro horiek, batez ere, lidergoari begirakoak izango dira. Urtean zehar Eusliderrak tailerra eskainiko da herriko elkarte eta abarrei. Bestalde, euskarak duen balioa eta erabilgarritasuna ikusarazteko, antolatzen diren bestelako ikastaro edo formazio saioetan parte-hartzeagatik tituluak eta merezimenduak emango zaizkie.

9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea.

9.1. Kirol-arloan euskararen erakargarritasuna landu eta era egokian proiektatu eta hedatzea

Egindako galdetegian argi ikus daiteke nola zenbait gazte kirolariak diren Horregatik, interesgarria izango litzateke kirolari zehatz batzuk herrira ekartzea hitzaldiak emateko, baita formazio saio edo ikastaroren bat ere. Horrela, haien esperientziari buruz, ibilbide profesionalari buruz eta euskarak haien bizitzan duen garrantziari buruzko azalpenak eman ahal izango dituzte eta gazteak jarrera horretara erakarri.

9.2. Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea

Arratiako bailaran mundu mailako lehiaketak egiten dira: Gorbeia Suzien eta Igorreko ziklo-kros lasterketa. Ondorioz, horiek baliatuz eta erreferente izanez, bertan euskara erabiltzeko planak garatuko dira, hau da, memento bakoitzean nola erantzun egoera konkretuei, baina betiere euskara lehenetsiz.

9.3. Maila profesionaleko kirolean ere euskararen erabilera sustatzea, puntako kirolarien partaidetza lortuz

Arratia mailako kirolari ezberdinak dira ezagunak, hala nola: Alex Txikon, Beñat Etxebarria... Horiek sarri komunikabideetan agertzen dira eta eragin handia izaten dute gizartean. Hori dela eta, beraiekin harremanetan jartzea eta haiekin batera euskararen inguruko jarrera eta sustapena bultzatzeko konpromisoa eska dakieke. Hala, beraien talde, lankide edota beraiekin dagoen orori euskaraz egiteko bulkada eta babesa emango diote.

10. Euskara kirol-munduan erabiltzeari prestigioa ematea, kalitatearekin eta erronka berriei aurre egiteko gaitasunarekin lotuz, nazioarte mailako balizko parte-hartze eta lehiari begira identifikazio osagaitzat erabiliz

10.4 Oihartzun handiko kirol ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea hizkuntza paisaian (idatziz zein ahoz)

Arestian aipatu bezala, Arratia mailan oihartzun handiko hainbat ekintza eta ekitaldi berezi egiten dira. Horregatik, ekitaldi horietan euskararen presentzia bermatzea oso garrantzitsua da. Jende asko etortzen da Euskal Herriko hamaika txokotatik eta baita beste herrialde batzuetatik ere, beraz, euskara zabaldu nahi bada eta interesgarri egin ez dago aukera hobeagorik. Horretarako, ekitaldi horiek antolatzen dituzten elkarteekin batzartuko da eta laguntza eskainiko zaie euskararen presentzia berma dezaten.

Kulturgintza

1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea (Eusko Jaurlaritza, 2014)

1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea

Udaletan behaketa egin eta informazio bildu eta gero, argi ikus daiteke eskaintza nahiko zabala dela; hala ere, eskaintza hori gehiago handitu eta sustatu behar da. Ondorioz, orain artean dauden ekintzak indartu eta berriak proposatuko dira.

1.4. Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea

Jakin badakigu, Igorre euskalduna dela eta eta testuinguru euskaldun batean kokatuta dagoela. Gazte gehienek euskararekiko eta euskal kulturarekiko duten atxikimendua

ikusita. Gainera, egun, gazte horietako askok denbora tarte handiena Igorren ematen dute. Hortaz, hainbat ekimen garatuko dira egoera horri buelta emateko eta euskal kulturara gehiago hurbiltzeko; esate baterako, euskaraldia, bertso saioa eta herri afaria.

Euskaraldia euskara baztordeak sortzeko eta daudenak saretzeko erabiliko da. Bertan, herri guztietan egingo diren ekintzak azaldu, bideratu eta adostuko dira. Bestalde, herri guztiek bat egiten duten ekintza bat adostuko dute abenduaren 3an Igorren egiteko.

Bertso saioa, adin tarte guztiei bideratua izango da. Euskal kulturak eta bereziki bertsolaritzak duten indarra jakina da; horregatik, abagune ona izan daiteke belaunaldi eta jatorri desberdinak biltzeko bertan. Gainera, beste herrietako artistak (regueifak eta glosadors) ere bil daitezke eta kultur eskaintza anitza bezain zabala antolatu.

2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea (Eusko Jaurlaritzak, 2014).

2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak,...) abian jartzea edo indartzea

Gazteen artean, lehiaketek eta sariak arrakasta izaten dute, bai pike sanoa gustatzen zaielako eta bai parte-hartzeak dituen ondorioengatik (sariak, aitortpena...). Hori horrela, baliabide horiek erabiltzea eta indartzea inportantea izango da gazteek euskaraz sortzeko. Hala, bi ariketa egingo dituzte: batetik, bidaia lehiaketa, eta bestetik, Instagram lehiaketa.

Bidaia lehiaketari dagokionez, urtean zehar udari begira egoten da jendea, oporrak mundu guztiak gogoko ditu eta. Badakigu, 16 urteetatik aurrera gazteak haien lagunekin oporretan joatea pentsatzen hasten direla eta gurasoengandik apur bat urruntzen, familiako oporrak alboratuz. Hala ere, sarritan, bidaia ekonomiko bat antolatzeko zailtasunak dituzte eta ez dituzte tokiak ezagutzen edota oso gutxi dakite. Hori dela eta, bidaia lehiaketa bat antolatzea proposa da. Zertan datza lehiaketa? Gazte batek edo kuadrillak aurreko udan edo beste sasoi batean egindako bidaia bat kontatu eta beste bat prestatzean datza. Bidaien azalpen zehatzak eman behar dituzte: toki nola eta zergatik aukeratu zuten, lo egiteko aukeren berri eman, nolako esperientzia izan zen, bidaiaren aurrekontua... labur esanda, hiri, herri edo herrialde hori saldu behar dute. Ekintza apirilean egitea aurreikusten da, udaberria delako eta gazteek burua udan daukatelako. Hala, ikasleek bi gauza egin beharko dituzte: batetik, jendaurreko aurkezpena (egun zehatz bat jarriko da herriko kultur etxean aurkezpenak egiteko

eta herritarrek bertara gerturatzeko, ume, gazte zein heldu); bestetik, idatzizko lana (ahoz aurkeztu dutena ere idatziz egin beharko dute, hau da, pdf dokumentu batean bildu beharko dute informazio guztia). Guztia balioesteko, kultura zinegotzia, ludotekako arduraduna, eskolako zuzendaria eta alkatea izango dira epaileak. Hala, lehendabizi idatzizko lanak irakurriko dituzte eta horiek balioztatuko dituzte (idatzizko lanak izenik gabe emango zaizkie zilegitasun osoz jokatzeko; horretarako, euskara teknikaria arduratuko da dena prest uzteaz). Beraz, balioesteko orri bat bete beharko non hainbat item azalduko diren (originaltasuna, komunikatzeko gaitasuna, emandako informazioa, zehaztasunak, zuzentasuna...). Ekintza Igorren egingo da, izan ere Arratiako institutua bertan dagoela kontuan hartuta, oso toki egokia izan daiteke gazte gehiagorengana heltzeko. Ondorioz, nahiz eta institutuak ez bideratu ekintza bere laguntza beharrezkoa izango da gazteei ekintzaren berri emateko eta parte-hartzen animatzeko.

Bestalde, ahozko aurkezpenean ere formatu bera erabiliko da, baina bertan publikoak ere zeresan handia izango du. Aurkezpen bakoitzaren ondoren txalo zaparrada handiena jasotzen duen gazteak edo gazte kuadrillak ere sari berezi bat izango du. Irabazleak, 250 € jasoko ditu. Ahozko aurkezpenetako txalotuenak, herriko bidaia-agentzian % 10 deskontua jasoko du.

Instagram lehiaketari helduz, sare sozialek duten garrantzia sinestezina da, batez ere gazteengan. Hainbat sare sozial aurki ditzakegu gure inguruan: Facebook, Instagram, Twitter, Tuenti... eta hamaika gehiago. Hala, egun, gazteen artean indar handia duen sare soziala Instagram dugu. Horregatik, baliabide onuragarria izan daiteke gazteek mezuak euskaraz sortzeko. Lehiaketak honetan datza: herriko argazki bat atera (edozein toki eta horren gaineko informazioa eman) eta argazki horrekin euskarazko mezu bat #lehiaketa traola jarritz. Bestalde, lehiaketan parte-hartu duten gazteen argazki eta mezuak Kultur etxeko aretoan erakusgai izango dira eta ondoren herriko kaleetan jarriko dira. Lehiaketa, urrian izango da eta hilabete eta erdiko epea izango dute. Dena den, garrantzitsua da aipatzea gazteek argazki bat baino gehiago bidali dezaketela. Lehiaketako epaileak kultura zinegotzia, ludotekako arduraduna, alkatea eta eskolako zuzendaria izango dira eta ez dute jakingo nork egin dituen argazkiak eta mezuak. Lehiaketa argazki eta mezu originalenak irabaziko du eta saria spa baterako (Hotel Balneario Areatza) bi bonu edo multiabentura (Troka Abentura) ekintza izango ditu aukeran.

4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea

4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea

Egun, komunikazioak berebiziko garrantzia du eta gazteek eskura dute memento oro. Horregatik, blog bat sortu eta hori elikatu behar da, hau da, blogean bailaran eta inguruetan (eskualdea gehien bat, nahiz eta Bilbo aldeko ekintzak ere sar daitezkeen) dauden euskarazko ekimenen eta produktuen berri emango da. Hori guztia, gazteek bideratuko dute baina teknikarien laguntza ere izango dute. Horretarako, lehen bazegoen Zorroztarrie izeneko bloga sortua, eta hori berreskuratu daiteke eta horrela lehenago egindakoari bulkada eman eta hori garatu.

4.2 Informazioaren zabalkundeari begira, erakundeen arteko elkarlana sendotzea

Aurrekoarekin batera, udalek bitartekoak eskaini behar dituzte eta haien arteko sare bat eraiki informazioa ahalik eta toki gehienetara heltzeko eta ahalik eta modu azkarrenean. Aldi berean, udalak erakunde ezberdinen bitartekoa izan behar dira, hau da, udalak inplikazio maila handia izan behar du eta beste erakundeei gauza bera eskatu. Horretarako, plataforma berezi bat sortuko da (moodle edo antzeko zerbait), bertan partaide bakoitzak dokumentazio eta informazio guztia igotzeko eta partekatzeko.

Sentsibilizazioa eta motibazioa

1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea

1.3 Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldietarako abantailak eskaintzea

Gazteek erreferente eta eredu diren pertsonetan jartzen dute begia; gainera, komunikazioetan eta teknologia berrietan adituak dira. Beraz, biak uztartzea eta bereziki helburu horretarako ekintzak proposatzea ezinbestekoa da. Hala, euskaltegiarekin elkarlanean Eusliderrak tailerra egingo da. Bertan, erreferente diren gazteek beste gazte batzuk formatuko dituzte euskara izan dadin erabiltzen den hizkuntza nagusia. Bestalde, teknologiei dagokienez, gaur egun gazteek ikaragarritzko trebetasuna dute eta beraien bizitzaren toki handi bat hartzen

dute. Hori dela eta, euskara Interneten erabiltzeko ikastaroak eta aplikazioak sortzeko laguntza eskainiko zaie; esaterako, euskal jolasen aplikazioa sor dezakete eta etengabe elikatzen joan berrikuntzak txertatuz.

2. Familia transmisioa

2.1 Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

Euskararen transmisiorako familia nahitaezkoa; ondorioz, beren-beregi sortutako espazioa eta bertan ekintzak garatzea premiazkoa da. Hala, Udalak familia euskaraz olgetan egitasmoa jarriko du martxan. Bertan, seme-alabek eta beraien guraso eta aitona-amonak euskara erabiltzeko espazioak izango dituzte; esaterako: mozorro tailerra, ipuin-kontalaria, pailazoak egiten...

7. Aisia eta kirola

7.3 Aisialdi taldeetan eragitea, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten

Aurretik aipatu bezala, gero eta etorri berri gehiago dago gurean. Hori dela eta, ume eta gazte horiek herrian egiten diren ekintzetan parte-hartzen dute. Ondorioz, beraiek egokiago integratzeko eta aisialdia eta euskara lotzeko egitasmo berria plazaratuko da: Denok Euskara Gara. Bertan, aisialdiko taldeetako partaideak bilduz ekintza eta jarduera desberdinak plazaratuko dira dena uztartzeko; adibidez, beste hizkuntzetako oinarritzko hitzak eta kantak ezagutzeko eguna; dastaketa tailerra; musika emanaldia...

7.4 Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko

Arratian badaude hainbat kirol elkarte, baina esanguratsuenak Igorren biltzen dira (Arratia futbol taldea, Arratiako Ziklista Elkartea, Zaztaparrak Asti Taldea...). Hori baliatuz eta Udalak eskainitako laguntzaren bidez, elkarlanerako espazioa sortuko da. Bertan, hutsuneak identifikatu eta horiek nola konpondu eta garatzeko bideak eraikiko dira.

5.2. Kronograma

2018	Astea	Jarduerak
Iraila	1. astea	-Planaren aurkezpena -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Denok Euskara Gara aurkezpena
Urria	1. astea	-Euskaraldia -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Gurasoentzako ikastaroa
Azaroa	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Euskaraldia -Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Antzerki erakusketa
Abendua	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Euskaraldia -Familian olgetan
	3. astea	-Euskaraldia -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Euskaraldia
2019		

Urtarrila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Eusliderrak entrenatzaile eta abarrentzat -Familiar olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Hitzarmenak sinatu
Otsaila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familiar olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Antzerki ikastaroa
Martxoa	1. astea	-Eusliderrak gazteak -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familiar olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Sentiberatze kanpaina
Apirila	1. astea	-Bidaia lehiaketa -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familiar olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Kirolarien hitzaldia
Maiatza	1. astea	-Bidaia lehiaketaren aurkezpena -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Bertso saioa -Familiar olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu

	4. astea	-Gurasoentzako ikastaroa
Ekaina	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Hitzarmenen jarraipena
Uztaila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Dantza topaketak -Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Kultur azoka
Abuztua	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Kultura mundura zabaltzen ekitaldia (erakusketa, hitzaldi...)
Iraila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Planaren balorazioa
Urria	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Eusliderrak gazteak -Familian olgetan
	3. astea	-Instagram lehiaketaren hasiera -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Kirolarien hitzaldia

Azaroa	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Abendua	1. astea	-Instagram lehiaketaren bukaera -Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Hitzarmenaren jarraipena
2020		
Urtarrila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Otsaila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Martxoa	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Apirila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan

	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Sentiberatze kanpaina
Maiatza	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Bertso saioa -Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Ekaina	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Hitzarmenaren jarraipena
Uztaila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Kaleko antzerkia -Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Abuztua	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	
Iraila	1. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	2. astea	-Familian olgetan
	3. astea	-Sarean kultura agenda eguneratu eta elikatu
	4. astea	-Planaren ebaluazioa

5.3. Aurrekontua

Kontzeptua	Dirua	Diru-laguntza	Dirua
Familian olgetan	2500 €	Igorreko Udala	2300 €
Bidaia lehiaketa	250 €	Arratiako Mankomunitatea	200 €
Instagram Lehiaketa	Spa= 50 € (bonua) Abentura= 50 €	Igorreko Udala	100 €
Kirolarien hitzaldiak	Luntxak 70x3=210 €	Arratiako Udalak	210 €
Antzerki ikastaroa	Irakaslea 70 €	Arratiako Udalak	70 €
Kaleko antzerkia	2000 €	Arratiako udalak	2000 €

5.4 Hizkuntza planaren ebaluazioa

Hizkuntza plangintza guztietan bezala, ebaluazioa oso garrantzitsua da, guk ezarritako helburuak bete diren ala ez ikusteko. Hala, plangintza arrakastatsua izan den jakiteko, diagnosian erabili dugun metodologia bera erabiliko dugu.

Lehendabizi, hasierako bi urteetan behaketa zuzena egingo da; horrela, herriko gazteen hizkuntza ohitura aldatu den edo ez antzemango ahal izango da. Izan ere, etengabeko ebaluazioa gomendagarria da hasieran jarritako neurriak berdinak izaten jarraitu behar duten edo ez jakiteko.

Ondorioz, behaketa zuzena egiteko ardura planaren diseinatzaileak bere gain hartuko du; herriko tabernetan, aisialdiko eremuetan eta kaleetan gazteak zein hizkuntzatan aritzen diren ikusteko. Hori guztia 2018 eta 2019ko irailaren azken asteburuan.

Bestalde, planaren bukaeran, galdetegi bat emango zaie. Inkestan, euren aisialdian zein hizkuntza erabiltzen duten galdetuko zaie, esate baterako: kirola egiten dutenean zein hizkuntzatan egiten dute, lagunartean zein hizkuntza erabiltzen duten, telebista edo irratia zein hizkuntzatan ikusten edo entzuten duten eta abar. Era horretan, hasieran egindako

diagnosiaren emaitzetatik plangintzaren amaierara arte aldaketarik egon den jakin ahal zaingo da.

Bukatzeko, dagokion urteko irailean gazteekin eztabaida talde bat eratuko da udaletxeko aretoan; ordua eta eguna gazteekin adostuko da ahalik eta parte-hartze handiena lortze aldera. Horrela, talde batek, gazteek, dituen iritziak, steak... ezagutzeko eta hortik proposamen berriak proposatzeko. Horretarako, gazte kopuruaren arabera taldeak egingo dira (asko jota 8 pertsonako taldeak) eta bukaeran komunean jarriko da talde txikietan ateratako ondorioak. Aurrera eraman ahal izateko, planaren diseinatzaileaz gain kultura zinegotzia ere egongo da; izan ere, gerta daiteke gazte kopurua handia izatea eta horrela hobeto dinamizatzeko. Horietako gazte bakoitzari ohar bat bidaliko zaio, bai posta-elektronikora bai posta arruntez, parte-hartzea ziurtatzeko eta ordutegia galdetuz; behin erantzunak jasota gazteei ordutegi zehatza bidaliko zaie. Saioa ordubetekoa izango da, ahalik eta dinamikoena izateko eta gazteek arreta eta kontzentrazioa ez galtzeko.

Bibliografia

- Bilbao sarria, Paul; Larrea Mendizabal, Imanol (d. g.). Auñamendi Eusko Entziklopedia. Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza. Eskuragarri: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-politika-eta-hizkuntza-plangintza/ar-152049-137231/>
- Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Euskararen aholku batzordea (2012). ESEP: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20%28ESEP%29.pdf
- Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia (2014) V. Mapa Soziolinguistikoa. Gasteiz. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V%20MAPA-SOZIOLINGUISTIKOA%20baja_109_216.pdf, 2018/06/05 azkenengoz ikusia.
- Hernández, J.M. (2010). Hizkuntzaren arloak eta behar metodologikoak. Zarraga, A.; Coyos, J.B.; Hernández, J.M; Joly, L.; Larrea, I.; Martínez, L.V; Uranga, B.; Bilbao, P. Soziolinguistika eskuliburua. 289- 310 or. Andoain, Euskadi; Gasteiz, Euskadi: Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Soziolinguistika Klusterra. (2011). Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. <http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emaitzen%20txostena.pdf>, 2018/06/14 azkenengoz ikusia.

Eranskinak

ERANSKINA: Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntza-gaitasuna, herrialdeka, eskualdeka eta udalerrika. EAE, 2011

	Kopuruak				Ehunekoak (%)				Euskararen indizea (%)
	Hiztunak	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	Hiztunak	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	
Bizkaia	1.123.190	350380	304.356	468.454	100,0	31,2	27,1	41,7	44,7
Arratia Nerbioi	22.869	12.526	4.841	5.502	100,0	54,8	21,2	24,1	65,4
Arantzazu	341	259	49	33	100,0	76,0	14,4	9,7	83,1
Areatza	1.181	708	265	208	100,0	59,9	22,4	17,6	71,2
Arteaga-Gaztelu-Elexabaitia	737	553	104	80	100,0	75,0	14,1	10,9	82,1
Dima	1.319	1.088	129	102	100,0	82,5	9,8	7,7	87,4
Igorre	4.031	2.742	585	704	100,0	68,0	14,5	17,5	75,3
Zeanuri	1276	998	138	140	100,0	78,2	10,8	11,0	83,6
Zeberio	1.028	725	189	114	100,0	70,5	18,4	11,1	79,7

ERANSKINA: Kale-neurketa Igorren

Hizkuntzen kale-erabilera. Igorre, 2011 (%)

	Kop	(%)
Euskaraz	1.442	46,8
Gaztelaniaz	1.510	49,0
Beste hizkuntzetan	129	4,2
Guztira	3.081	100,0

Hizkuntzen kale-erabilera, adinaren arabera. Igorre, 2011 (euskaraz, %)

	Guztiak	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	46,8	62,9	35,4	38,6	41,6
Gaztelaniaz	49,0	34,1	59,2	55,7	58,4
Beste hizkuntzetan	4,2	3,0	5,3	26,1	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	3.081	1.027	206	1.507	341

ERANSKINA: Udalerri euskaldunen hizkuntza-ingurunea

Udalerri euskaldunetako eskualde buruen euskara gaitasuna eta erabilera soziala.

Eskualdea	Eskualde burua	Euskara gaitasuna (%)	Euskararen erabilera sozialaren tasa (%)
Arratia Nerbioi	Igorre	75,3	34,4

Erradio eta eskualde-buruaren euskara gaitasuna eta erabilera soziala. Lurgune euskalduneko udalerriak.

	Udalerria		Erradioa		Eskualdea		
	Euskara gaitasuna (%)	Erabilera soziala (%)	Euskara gaitasuna (%)	Erabilera soziala (%)	Eskualde burua	Euskara gaitasuna (%)	Erabilera soziala (%)
Arantzazu	83,1	59,9	70,2	32	Igorre	75,3	34,4
Areatza	71,2	26,7	78,7	44,5	Igorre	75,3	34,4
Arteaga	82,1	49,2	75,8	39,6	Igorre	75,3	34,4
Dima	87,4	65,2	74,5	36,3	Igorre	75,3	34,4
Igorre	75,3	34,4	69,2	28,7	Igorre	75,3	34,4
Zeanuri	83,6	61,4	77,4	41,3	Igorre	75,3	34,4
Zeberio	79,7	49	63,8	24,1	Igorre	75,3	34,4

ERANSKINA: Etorkinen kopurua eskualdeka

2. taula. Etorkinen ehunekoak lurralde historiko bakoitzean. 2006. (%)

	Biztanleria Osoa	Etorkinak	Etorkinen %
Kantauri Arabarra	33.398	810	2,4
Gorbeialdea	7.791	326	4,2
Arabako Lautada	241.496	14.768	6,1
Arabako Mendialdea	3.152	160	5,1
Arabako Errioxa	10.826	613	5,7
Arabako Ibarrak	5.262	180	3,4
Araba. Guztira	301.925	16.857	5,6
Donostialdea	319.563	12.333	3,9
Goierri	64.902	2.260	3,5
Tolosa	45.897	1.217	2,7
Urola Kosta	69.430	2.323	3,3
Deba Garaia	61.654	1.647	2,7
Bidasoa Behea	76.334	3.881	5,1
Deba Behea	54.115	1.629	3,0
Gipuzkoa. Guztira	691.895	25.290	3,7
Arratia-Nerbioi	22.205	733	3,3
Durangaldea	93.581	2.939	3,1
Enkarterri	30.342	865	2,9
Gernika-Bermeo	45.111	1.680	3,7
Bilbo Handia	872.678	34.104	3,9
Markina-Ondarroa	26.178	1.167	4,5
Plentzia-Mungia	49.768	1.907	3,8
Bizkaia Guztira	1.139.863	43.395	3,8
Guztira	2.133.683	85.542	4,0

Iturria: EINKo datuak.

4. grafikoa

EAEko eskualdeetako etorkinak jatorrizko kontinentearen arabera. 2006. (%)

ERANSKINA: Diagnosia egiteko erabilitako galdetegia

1. Nongoa zara?

2. Adina

3. Sexua

4. Zure aisialdiko denbora tarterik handiena non ematen duzu?

	Zeanurin
	Areatzan
	Artean
	Arantzazun
	Diman
	Igorren
	Lemoan
	Bedian
	Beste bat

5. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,

6. Aisialdirako ekintzetan egiten diren jardueretan zer rol duzu?

	Entrenatzailea
	Irakaslea
	Parte-hartzen duen gaztea
	Boluntarioa
	Begiralea
	Beste bat

7. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,

Hizkuntza

8. Zein da zure hizkuntza

X batekin markatu	Zein da zure ama hizkuntza?	Zure gurasoena?	Etxeko hizkuntza?	Lagunartekoa?
Euskara				
Gaztelania				
Euskara eta gaztelania				
Beste hizkuntza bat				

9. Zein hizkuntza erabiltzen duzu?

X batekin markatu	Gurasoekin zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?	Eskolan zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?	Lagunartean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?	Herriko tabernetan zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?	Herriko dendetan zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?	Pertsona bat ezagutzen duzunean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lehen hartu-emanen?
Beti euskaraz						
Gehienbat euskaraz						
Ia beti euskaraz						
Inoiz ez euskaraz						
Beti						

gaztelaniaz						
Gehienbat gaztelaniaz						
Ia beti gaztelaniaz						
Inoiz ez gaztelaniaz						
Beste hizkuntza bat						

10. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,

Aisialdia

11. Zer egiten duzu?

	Antzerkia
	Kirola
	Dantza
	Musika
	Kuadrillako ekintza (irteerak, bazkari-afariak, poteoa...)
	Beste bat

12. honen gaineko zehaztasunik baduzu,

13. Zein kirol egiten duzu?

	Errugbia
	Saskibaloia
	Futbola
	Igeriketa
	Esku pilota

	Txirrindularitza
	Crossfit
	Eskalada
	Beste bat

14. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,

15. Sare sozialak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

	Euskaraz
	Gehienbat euskaraz
	Gaztelaniaz
	Gehienbat gaztelaniaz
	Beste bat

16. Telebista zein hizkuntzatan ikusten duzu?

	Euskaraz	Gehienbat euskaraz	Gaztelaniaz	Gehienbat gaztelaniaz	Beste bat
Albisteak					
Filmak					
Telesailak					
Beste batzuk					

17. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,

18. Musika zein hizkuntzatan entzuten duzu?

	Euskaraz
	Gehienbat euskaraz
	Gaztelaniaz
	Gehienbat gaztelaniaz
	Euskaraz eta gaztelaniaz
	Beste bat

19. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,

20. Herrian antolatzen diren aisialdiko ekintzetan parte-hartzen duzu?

	Bai
	Ez

21. Baduzu edo jasotzen duzu horren inguruko informaziorik?

	Bai
	Ez

22. Honen gaineko zehaztasunik baduzu,